



INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA (IAE)

IAEan egilea edo egileak identifikatu behar dira, haien titulazioa, eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Horrez gainera, amaiera-data eta egilearen sinadura ere jaso behar dira.

211/2012 Dekretuaren II. eranskinean eta 21/2013 Legearen IV. eranskinean zehaztutako edukiak izango ditu IAEk, eta kontuan hartuko ditu ingurumen-organoak egingo duen irismen agirian ezarritako neurri eta zehaztapenak.

Eduki horiek sistematizatzeko aldera, eskema honi jarraituz osatu eta antolatu ahal izango dira ingurumen-azterketa estrategikoaren atalak:

1.- PLANAREN EDO PROGRAMAREN BEHARRA ETA HELBURUAK. ALDIBEREKO BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIN DUEN ELKARRERAGINA.

Atal honetan, honakoak aintzat hartuko dira:

- Planaren edo programaren helburu orokor edo estrategikoak eta helburu espezifikoak, ingurumen-arloko helburuak barne.
- Planaren edo programaren eta aurreikusitako jarduketaren beharra eta egokiera justifikatzea argudio bidez. Hierarkia-maila goragoko plan edo programaren batek aurreikusitakoa bada, horren aipamena egin behar da, eta erregelamenduz ingurumen-ebaluazioa bete behar izan badu, ebaluazio horren zehaztapen nagusiak adieraziko dira.
- Gerta litezkeen metatze-eraginak eta ingurumen-sinergia eraginak zehazte aldera, planaren edo programaren helburuek eta jarduketek zenbaterainoko egokitasuna duten aztertuko da, aplikazio-eremuari dagokionez erabat edo hein batean bat datozen lurraldeko edo arloko beste plan edo programa batzuen aldean, edo gaiari dagokionez lotura dutenen aldean.

Alde horretatik, maila desberdinetako eremuetako (Europar Batasuna, estatua, autonomia erkidegoa eta/edo tokian tokikoa) araudietan, estrategietan eta planetan finkatutako ingurumenaren babeserako helburuak eta garapenjasangarrirako irizpideak ere sartuko dira, eta horrekin batera, zer muga finkatzen diren edo proposatzen diren plana edo programa prestatzean aintzat hartzeko.

2.- INGURUAREN DESKRIBAPENA ETA KARAKTERIZAZIOA.

Planaren edo programaren eremuko ingurumen-alderdi esanguratsuenen, eta hala balegokio, arazo esanguratsuenen deskribapen eta analisi banakakoa eta integratua (biodibertsitatea, flora, fauna, espazio eta espezie babestuak, biztanleria eta osasuna, gea, lurzorua, ura, airea, zarata, ingurumen arriskuak eta arrisku teknologikoak, paisaia, ingurumen-unitateak, ondasun materialak, kultur ondarea, faktore klimatikoak –klima-aldaketari lotutako alderdiak barne–), baita dauden beste ingurumen- edo jasangarritasunbaldintza batzuen ere (inplikazio energetikoak, irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria, hondakinen sorrera, baliabide berriztagarrien eta ez berriztagarrien erabilera, eta abar). Atzemandako informazio-gabeziak seinalatuko dira.



Atal honetan, jarraian adierazitakoak identifikatu eta modu espezifikoan aztertuko dira, hala balegokie: naturaren kontserbazioari buruzko legediaren arabera babestutako naturguneak, nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezeguneak, paisaia berezi eta/edo bikainak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak, Europar Batasunaren intereseko habitatak eta/edo lehentasunezkoak, zuhaizti autoktonoak, ibai eremuak eta ingurumen kalitate eta sentsibilitateko beste eremu batzuk, erasanak gerta balitezke.

Aipatutako hori guztia behar bezala interpretatzeko lagungarria izango den dokumentazio kartografikoa gehituko da

3.- HELBURUEN LORPENERAKO ALTERNATIBAK SORTZEA ETA AZTERTZEA. IRTENBIDEA JUSTIFIKATZEA.

Aurreko 1 ataletik eratorritako analisietan eta emaitzetan oinarrituta, planaren edo programaren helburuen lorpenerako egingarriak eta ikuspegi teknikitik bideragarriak diren alternatibak sortu eta modu espezifikoan deskribatuko dira, 0 alternatiba barne (plana ez gauzatzea).

Azterlanerako hautatu diren alternatibetan honako gaiei dagozkien alternatibak landu daitezke: kokapena, garapen tekniko edo teknologikoa, denborazko garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabideen erabilera, eta abar; betiere, maila kontzeptuarekin desberdinak izan arren, berdin-berdin ahalbidetzen badute helburuak betetzea. Proposamen teknologikoei dagokienez, landutako alternatiba bakoitzeko arte horren egoeraren laburpena sartuko da, eta kasu bakoitzean eskura dauden teknika onenen artean zergatik egin den hautu hori justifikatuko da.

Alternatiba bakoitzaren aurretiazko analisia eta ingurumen-ebaluazioa egingo da modu konparatiboan aztertuz kongruentzia, ekarpen eta proportzionaltasun handiagoa edo txikiagoa duen bakoitzak 2 atalean erasandako helburuen eta ingurumen eta jasangarritasun alderdien gainean. Analisi hori egiteko oinarritzko erreferentzia-esparrua izango da helburuen lorpenerako planaren behar errearen eta 0 alternatibaren nahikotasun ezaren arrazoibide kontrastatua.

Hori guztia oinarritzat hartuta, aurrez hautatutako alternatiba justifikatu behar da, betiere zehaztuz zer arrazoi dauden gainerako alternatibak aukera hobetzat hartu ez izateko.

Aipatutako hori guztia behar bezala interpretatzeko lagungarria izango den dokumentazio kartografikoa gehituko da.

4.- HAUTATUTAKO PLANAREN EDO PROGRAMAREN EDUKIAK ETA GARAPENA ETA JARDUKETEN EZAUGARRIAK.

Hautatutako planaren edo programaren ezaugarrien eta bere garapen aurreikusgarriaren deskribapena. Hor sartu behar dira proposatutako jarduketaren deskribapena (teknologia, tipologia, dimentsioak, kopurua, gaitasuna, kudeaketa, erabilera, eta abar), jarduketok garatuko diren eremuen mugaketa espazial orokorra, eremu horien barruan jarduketek izango duten kokapena, antolaketa, zonakatzea, sailkapen eta/edo kalifikazio espazial xehaketa, eta, hala balegokie, erabileren kudeaketa eta erregulazioa. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legedian zerrendatutako kategoriaren batekin bat datozen proiektuak identifikatuko dira.

Aipatutako hori guztia behar bezala interpretatzeko lagungarria izango den dokumentazio kartografikoa gehituko da.

5.- INGURUMEN ERAGINAK IDENTIFIKATZEA ETA BALORATZEA.



Hautatutako plan edo programaren helburuek eta jarduketek 2 atalean seinalatutako ingurumen- eta jasangarritasun- alderdietan izan ditzaketen ingurumen inpaktu aurreikusgarrien zehatz-mehatzeko analisia eta balorazioa, bai banaka, bai modu integratuan edo horien guztien arteko elkarreraginean. Ingurumen-kalitatearen gaineko eta planean aurreikusitako jarduketak eta erabilerak hartzeko gaitasunaren gaineko balorazioa, honen arabera: zenbat eta gaitasun handiagoa duen kokapeneskakizunak eta ingurumenean ahalik eta inpaktu txikiena egiteko eskakizunak betetzeko. Hala balegokio, planak edo programak Natura 2000 Sareko lekuetan izan litzakeen ondorioen ebaluazio egokia, horien araudi erregulatzailerari jarraituz.

Inpaktuak deskribatu, karakterizatu eta ahal den neurrian kuantifikatu ere egingo dira, eta horretarako, baliozkoak dira 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. atalean definitzen dituen atributu edo kontzeptu teknikoak, eta inpaktu horien iragarpenaren ziurgabetasunmaila seinalatu ahal da. Planaren jarduketa desberdinen metatze eta sinergiaeraginak arreta bereziarekin aztertuko dira, baita horiek beste plan batzuetako beste jarduketekin sor ditzaketenak ere. Ahal izanez gero, inpaktuak kartografikoki kokatuko dira, eta era berean, inpaktu horiek aurreikusitakoaren arabera gauzatuko liratekeen plan edo programaren fasearekin lotzeko ahalegina ere egingo da. Azkenik, inpaktuak kalifikatu egin ahalko dira: bateragarria, neurritzkoa, larria eta kritikoa.

Lehendik dauden plangintzekin eta ingurumen-irizpideekin bateraezinak izateagatik, onarpen orokorreko arau edo azterlan teknikoetan ezarritako muga balioak gaitzizteagatik, eta/edo ingurumenean inplikazio larri edo onartezinak izateagatik aldatuak izan diren edo aldatu edo ezabatu beharrekoak diren planaren edo programaren jarduketak edo erabilerak identifikatuko dira, halakorik balego.

6.- INGURUMEN-INTEGRAZIOA: NEURRI BABESLEAK, ZUZENTZAILEAK ETA/EDO KONPENTSATZAILEAK.

Hautatutako plana edo programa aplikatzean ingurumenean sor litekeen eragin kaltegarri adierazgarri oro prebenitzeko, murrizteko, eta, ahal den neurrian, zuzentzeko eta/edo konpentsatzeko aurreikusitako ingurumen-integraziorako neurriak finkatuko dira. Horrez gain, horien kostua zenbatetsiko da, baita bideragarritasun ekonomikoa ere, eta gauzatzeko denbora-plangintza. Gainera, goragoko maila bateko planetatik eratorritako neurriak zehaztu behar dira.

Planteatu beharreko neurriak ondoko gai hauei buruzkoak izan litezke:

- Planaren edo programaren helburu orokor edo estrategikoak eta helburu espezifikoak egokitzeari buruzko neurriak.
- Inpakturik adierazgarrienei dagozkien neurri zuzentzaileak, helburutzat hartuta halakoak gertatzeko probabilitatea murriztea eta elementu baliotsu eta kalteberak nahiz biztanleria inpaktu esanguratsuen eraginpean egoteko aukera saihestea.
- Neurri babesleak eta zuzentzaileak, ondoko gaiak dagokienez: kokapena, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa, hiri-lurren eta lur urbanizagarrien gaineko zehaztapenak, erabilera global eta xehatuak, erasandako gune desberdinen gaineko zehaztapen espezifikoak, jarduketan kopuru, dimentsio eta/edo gaitasuna, erabilitako teknologiak, eta abar.
- Neurri babesleak, planaren proposamenengatik zuzenean mehatxupean dauden natur baliabide estrategikoen (habitatak, espezieak, paisaia,



urbaliabideak, ur-masak, hezeguneak, ondare geologikoa, eta abar) kontserbaziora bideratuak.

- Planaren jarduketak (hazkunde berriak, azpiegiturak, eraikinak, zerbitzuak, eta abar) hiri- eta landa-eremuko paisaian ondo integratzea bermatzeko neurriak, landa-lurzoruaren erabilera tradizionalak eta nekazaritza-egitura mantentzeko neurriak, mugikortasun eta irisgarritasun jasangarria bultzatzeko neurriak, aurrezpen eta efizientzia energetikoa eta baliabide material (ezXX) berriztagarrien erabilera optimizatzeko neurriak, klimaaldaketa arintzeko eta horren aurrean moldatzeko neurriak, hondakinen sorrera murrizteko neurriak, eta abar. utilización de recursos materiales no renovables.
- Neurri konpentsatzaileak, ingurumenean aurreikusitako kalterik adierazgarrienak leuntzeko helburua izango duten baliabide berriak sortzera bideratuta.
- Maila beheragoko planetan edo horien garapenerako proiektuetan aintzat hartu beharreko neurriak.

7.- JARRAIPENA EGITEKO PROGRAMA.

Planaren edo programaren ingurumen-eraginak gainbegiratzeko eta zaintzeko programa. Ahal den neurrian, planak edo programak berak bere helburuen eta jarduketaren jarraipena eta kontrola egiteko ezarritako mekanismoetan integratuko da.

Programak honako alderdiak zehaztuko ditu: kontrolaren helburuak, eta zein fasetan egingo den; jarraipenaren xede izango diren ingurumen-sistema, -alderdi edo -aldagaiak eta neurtzeko adierazleak (kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak); parametro kuantifikagarrien mugak edo erreferentzia-mailak ezartzea; eta planaren fase bakoitza gauzatzean aurreikusitako ingurumen-helburuak eta neurriak zenbateraino betetzen diren. Aukera egongo da programan zehaztuta uzteko alderdi jakinen baten analisi xehatua atzeratu egin behar bada plangintza-prozesuaren hurrengo fase batera edo garapen-proiektuetara.

8.- LABURPEN DOKUMENTUA.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraituz emandako informazio guztiaren laburpen ez teknikoa, alderdirik nabarmengarrienak kartografikoki azalduta.